

Otso itzuli da albumaren lantzea

Helburuak :

- Testo berri bat irakurri eta ulertu.
- Hiztegi berri bat ikasi.
- Testo egitura berezi bat ulertu.
- Irudi bat begiratzuz istorioa asmatu eta idatzi.

Zeihar kompetentziak :

- Elgarritzeta batean parte hartu, bere iritzia eman errantzuna esplikatzuz.
- Lagunak errespetatu beren iritzia entzunez eta onartuz

Hizkuntz kompetentziak :

MINTZATU

- Entzuna den istorio bat berriz ahozkatu, bere hitzekin.
- Albuma batean ikusi marrazki baten erranahia ulertu, deskribatzuz.

IRAKURTU

- Gelan landu albuma bat bakarrik irakurri.

IDATZI

- Aginte sinple bati errantzuten dion testo labur bat idatzi.
- Garbiki idatzi, puntuazioa errespetatuz eta beehar den hiztegia eta joskera erabiliz.

Hiztegia

Pertsonaien izenak : untxi, otso, ahuntz, pitikak, txerrikumeak, bildotsa, Pello, Txanogorritxu.

Egunkari, jarleku, ihiztari, ume, afari, egunero...

Aditzak : jarria, irakurtu, aterbetu, jauzi egin, atean jo, beldur izan...

Joskera

- pentsatzen dut (uste dut) dela.
- neretzat da.
- ez da bainan

Haurren antolaketa

Elkartuak irakurketa konparaketen eta bildumentzat.

Taldeka banaturik idatz lanentzat (mailak nahasirik)

Urraspidea

Aktibitate hauentzat albulan diren ipuin eta alegiak ahantzurat ikusiak izanen dira.

1. *Libururan estalgiaren deskribapena.*

Galdera bat pausatua da haurreri : « Zer ikusten duzue estalgiaren gainean ? »

Haurren ahozko errantzunekin agertuko da taulan estalgiaren egitura, hiztegi eta aditz multzo bat (otso, lapin, egunkari, jarleku, belarri, jarria da, irakurtzen du)

2. *Istorioaren asmatzea.*

Galdera bat pausatua da haurreri : « Zer izanen da istorioa ? »

Galdera taulan idatzia da.

Haurrek taldeka emanen errantzunen dute idatziz.

Ondorioz, ideei desberdinen konparaketa eta bilduma egiten da afitxa baten gainean. Afitxa hori atxikitzen da memorio gisa lantze bukaeran konparaketa baten egiteko.

3. *Istorioaren irakurtzea.*

Pertsonai bakotxaren agertzea (10. orrialdetik 31. orrialdea arte):

- erakasleak testoa irakurtzen du, irudiak erakutsi gabe.
- ahoz haurrek ulertu dutena agertarazten dute.
- irudia erakusten da, haurrek deskribatzen dute. Hiztegi berria taulan idazten da.
- haurrek pertsonai berriaren nortasun karta bat eraikitzen dute :
 - taldeka lehen idazkera
 - konparaketa
 - bilduma
 - fitxa baten idaztea, gelan afitxatua izanen dena, frisa baten itxuratzeko.

Otsoa agertu ondoan

31. orrialdea.

Galdera bat pausatzen da : « Zer gertatuko da ? ».

Haurrek, taldeka, idatziz errantzuten dute.

Ondorioz, bilduma ahoz zabaldu.

Irakurketa segitu.

4. *Bilana*

Haurrek asmatu istorioaren idatziak eta egiazko istorioa konparatu.

5. *Ebaluaketak*

Ulermenaren ebaluaketa :

- CP mailan : pertsonaiak agertarazten dituen marrazki bat antolatu. Pertsonaien izenak idatzi. (pertsonai bakotxaren fitxa taulan lotua da).
- CE1 mailan : gauza bera egin bainan pertsonaien agertze ordena errespetatuz eta erakutsiz. Gai izanen dira ere fitxan titulua eta egunaren idazteko.

Luzamen ideiak.

- Antzerkia
Istorioa antzerki gisan berriz eman.
- Pertsonaiak mintzarazi (28. orrialdean) bunbuiloetan
- Istorio bat idatzi pertsonaiak aldatuz, bainan testoaren egitura atxikiz :
Literaturako fama txarreko beste pertsonai bat hartu bere biktimekin : axeria, sorgina, haur-jalea ...
- Karta joko bat eraiki : egunkariko marrazkia doakion pertsonaiari lotu.
- « Itzuli naiz » liburua irakurtu.